

## AGUR, XIBERUA!

Pierre Bordazarre Etxahun-Iruri  
(Iruri, Zuberoa, 1908 – Paue, Okzitania, 1979)

Euskara batuan

1

Sorlekua utzirik gazte nintzelarik / Parisen sartu nintzen [kuraiaz](#) beterik / Plazerez gose eta buruan harturik / Behar nuela alegera bizi / [Bostetan](#) geroztik / Negar egiten dut Xiberua zugatik

*Errepika*

Agur, Xiberua / Bazter guzietako xokorik ederrena / Agur, sorlekua / Zurekin ditut ene ametsik goxoenak / Bihotzaren erditik / Bostetan [ilki](#) didazu hasperena / Zu utziz geroztik / Bizi naiz tristerik / Abandonaturik / Ez baita herririk / Paris ez besterik / Zu bezalakorik.

2

Palazio ederretan gara alojatzen / Eta segur goratik aire freskoa hartzen / Gain behera so eginik baitzait iruditzen / Orhi gainean naizela [agitzen](#) / Baina ez dira hemen / Bazterrak berdatzen / Txoriak kantatzen!

3

Ametsa, lagun nazak ni Atharratzerat / Ene azken egunen han igarotzera / Orhiko txoriaren kantuz [behatzera](#) / Barka ditzan nik egin negarrak / [Hots](#), Xiberotarrak / [Aitzinean](#) gora / Euskaldun bandera.

Hitzak eta musika: Etxahun-Iruri  
Etxahun-Iruri, *Khantan*, Jakes Larrondo agertzailea, 1977.  
<https://armiarma.eus/emailuak/mizka/irur00.htm>